

GIZONA BETI GIZON

Doinua: "Triki-trauki-trauki"

1

Kantatzera goaz gaur
kopla zahar-barriak,
euskaldunentzat dira
kontsolagarriak

2

Hau dok bizimodua
hau modu bizia
eskuratu baino lehen
galtzen dan gauzia.

3

Urteak joan eta
urteak etorri,
ez dago dantzarako
Mari Gonagorri.

4

Aiene ta oiene
hau bizimodua,
urteak badoaz ta
neu bere banoa.

5

Atzo nintzan iloba
eta gaur osaba,
etzirako aitita
lurpean ez bada.

6

Baneuka eta banintz
balitz eta bazan,
alperarren etxean
arratoiak dantzan.

7

Zaharrak ganbelu eta
gazteak gaztelu,
gehienetan gabiltza
pixaz baina belu.

8

Oiloak kukurruku
oilarrak karkaxo,
holakoriki jazo ohi dan
etxearen gaixo.

9

Kolkotik botatzean
plast alzora jausi,
jokatzen dakiana
horixe da nagusi.

10

Behin baten Erromara
joan zan astoa,
handik etorrita be
ha beti lehengoa.

11

Besteari esana
geuk egin bagendu,
honezkero guztiok
egin ginan santu.

12

Danok ondo dakigu
bestentzat mediku,
baina norberak egin
behar domistiku.

13

Ahal danean ahal dana,
ene gizontxo,
Garizuman barau ta
Pazkutan bildotsa.

14

Ez daukanak baleuka,
ta daukanak dauka,
daukanak mauka-mauka,
ez daukanak zaunka.

15

Pozutik urten eta
itsasora jausi,
berez herren danari
bigarren hausi.

16

Alkarren parekoak
ni, zu eta bera,
bataz-beste hor gabiltz
gitxi gorabehera.

17

Bururik ez daukanak
txapel haundia nahi,
txapelak buru hutsik
ezin bete ja-jai.

18

Modu barriak eta
mainak beti lehenak,
zer diferentzi dauke
kaxkamotz-melenak?

19

Asto txiki izan ta
mando haundi bizi,
logurea kentzeko
ez dok maina gitxi!

20

Beti dauko hazurrak
inontzat koipia,
norberarentzat beti
mamina hobia.

21

Ez daiguka jokatu
batezko besteko,
jan daigun bizitzeko
ez bizi jateko.

22

Bat irabazi eta
halako lau galdu,
martxa hortan laster dok
etxea be saldu.

23

Herren baten lepotik
barre egin baino lehen,
ikusi ea norbera
zelantxu dabilen.

24

Haizea buruan ta
ibili munduan,
santuei erregutu
preima orduan.

25

Hainbeste ikasita
ezin kendu mina,
bista ona eukita
ikusi-ezina...

26

Astoak astoari
egin behar azka,
bestea "peste" da ta
emoten dau nazka.

27

Betiko legea da
gogorrena alkate,
besteak zuzentzeko
bada borondate.

28

Eleizarako ez da
sarri izaten giro,
baina bai plazarako,
astiro-astiro.

29

Mesedeak hautsetan,
kalteak harrian,
kontuz ibili, lagun,
horreen hurrian.

30

Gizona beti gizon
lehen, orain ta beti,
holan beharko da-ta
holan izan bedi!